

EUSKERA

1. DORTSALAK


Partaideen identifikaziorako material guztia LARUNBATEAN, MAIATZAREN 30AN, jasoko da, 18:00etatik 20:00etara, ZARAUZKO POLIKIROLDEGIAN. Probaren egunean ere aukera izango da identifikaziorako materiala jasotzeko, goizeko 7:00ak eta 8:00ak artean. Antolatzaileen gomendioa da identifikaziorako material hori larunbatean jasotzea, probaren egunean pilaketarik eta itxaronaldirik gerta ez dadin.

DORTSALAK JASOTZERA KOAN, PARTAIDE GUZTIEK BEREN NAN-A AURKEZTU BEHARKO DUTE, ETA FEDERAZIOAREN LIZENTZIA, FEDERATUEN KASUAN.

2- APARKALEKUAK.

Aparkaleku nagusia Eroskin kokatuta egongo da. Autopista irteeratik bidea adierazita egongo da. Plaza guztiak betetzen direnean, Aritzbatalde kiroldegi inguruko aparkalekuetan kotxea uzteko aukera ere izango da.

Ondorengo argazkian adierazten da autopista irteeratik Eroskiko aparkalekura doan bidea eta Aritzbatalde kiroldegi inguruan aparkatzeko tokiak.





3-IRTEERA.

Irteera 08:00tan Aritzatalde kiroldegitik izango da. (Zuberoa Kalea, goiko argazkian gurutze gorri batez markatua)

4-AMAIERA.

Polikiroldegian amaituko da ibilbidea, non bukaera adierazita egongo den.

5-DUTXAK.

Dutxak kiroldegian egongo dira, amaiera puntuan hain zuzen ere.

6-BIZIKLETA APARKALEKUA.

Bizikleten aparkalekua 15:00ak arte egongo da. Kontutan izan antolakuntzak ez duela GPS, etb... bazelako gailuen ardurarik izango. Hau dela eta, proba amaitu ondoren, bizikletatik kendu eta norberarekin eramatea gomendatzen da.

Aparkalekuak **dortsalaren** arabera antolatuko dira; eta horretarako, dortsalarekin batera emango den eskumuturrekoa erabili beharko da. Dortsala etaeskumuturrekoaren zenbakiak berdinak izan beharko dute norberak bere bizikleta aparkalekutik atera ahal izateko. Modu honetan, parte hartzaile bakoitzak bere bizikleta ateratzen duela ziurtatuko dugu.

7- KONTAKTUA

Proban zehar arazorik izanez gero, dortsalarekin batera emango den eskumuturrekoan datorren telefono zenbakira deitu ahal izango duzue.